

IDAZLEON LANARTEA.

Gure lanbideko arazo batzuk

(2019-05-26)

Liburugintzari lotutako arazo batzuk

1. Edizio kontratuak

Inoiz ez dugu kontraproposamenik egin, beti sinatu ohi dugu aurrean ipinitakoa (oro har). Kontratu tipo bat egin behar genuke, euskarri bat izan dezagun, erreferentzia bat.

Editorial batzuk hasi dira kontratuak saneatzen.

Kontratu mordo bat daukat, garai desberdinetakoak (koldo izagirre). Besterik ez bada, nolako tratua hartu dugun ikusteko balio lezake, eta —honek interesa eduki lezake— gisa horretako kontratuak oro indargabe uzteko. Alegia, iraganerako indarra eduki behar lukeela kontratu eredu adostu batek (editorialak + egileak).

Frantzia, Belgika, Suitza, Alemania... estatu horietako idazle batasunek sarean dauzkate ipiniak kontratu ereduak. Neronek baliatu izan ditut.

2. Sariak

Zarauzko Udalaren Lizardi sariak editatu egiten ditu sarituak. Baina udala egile eskubideen jabe bihurtzen da... hamar urtez! Saria, 4.000 euro (2018ko datuak). Saritua argialetxe homologatu batek editatzen du. Hamar urtean egin liteke zer edo zer. Legea urratu gabe egindako jukutria izan liteke, baina ez dirudi izugarri etikoa: saria ematen dizut baina gero diru hori bihurtuko dit makinaria batek zuri kentzen dizkizudan eskubideekin. Esan liteke, hasteko, ez dela berez saria. Beste zer edo zer da.

Sariak banan bana azertu behar ditugu.

Liburu feriei lotutako arazo batzuk

1. Durango

Durango ez dago banaketa gasturik ez dendaririk: editorialak zuzenean saltzen du. Haatik, egileak gastu horiek egin balira bezalako ehunekoa jasotzen du. Kalkulatu ezinekoa da Durango dela eta editorialek sortzaileoi zor digutena (idazleoi, irudigileei, kantariei).

Eskandalu handi samarra da Durangokoa.

2. Herrietako feriak

Batzuetan banatzailea izaten da liburuak daramatzana, ez editoriala. Horrelakoetan dendariaren zatia da jaten dena. Baina egileak dendan saldutakoaren ehuneko bera hartzen du horrelakoetan ere.

Hedabideei lotutako arazo batzuk

1. Prentsa kolaborazioak

Berrian, 6.000 karaktere 60 euro ordaintzen dira.

Noticias de Gipuzkoan 80 euro ordaintzen dute 3.000 karaktere idatzita.

Ortzadar gehigarrian folio bat idazteagatik (1.200-1400 karaktere), 80 euro.

Eman dezagun Berria ez dabilela subentzioen aparrean, baina Berria alboratuta, Noticiasen egin behar den lanaren erdia egin behar da Ortzadarren diru kopura bera jasotzeko.

Badago zer aztertua honetan ere.

2. Irrati kolaborazioak

2018an behintzat, folio bat idatzi eta irakurtzea 45 euro ordaintzen zuen Euskadi Irratiak asteroko kolaborazioa (aktualitateari buruzkoa, horrek suposatze duenarekin irakurketa ordutan). Zergaren kenketa eginda: 35 euro. Hilaren buruan 140 euro, Gizarte Segurantzaren kotizazio minimoaren erdia pagatzeko ere ez da iristen (gutxigatik, egia da).

3. Kontu hauetan idazleok baino ezagutza handiagoa edukiko dute kazetari autonomoek.

Hitzaldiei lotutako arazo batzuk

1. Hitzaldiak

Idazle batzuk gai dira lau apunte hartu eta hitzaldi eder bat inprobisatzeko. Talentua. Hala ere, gutxitan izaten dira hitzaldiak idazlearen sorkuntza. Gehienak enkarguzko lanak izan ohi dira: halako autorearen urteurrena, itsasoa (zernahi) eta literatura, euskara eta

ilargia (zernahi)... Gaia apur bat ikertu, gidoi bat egin, segurtasunezko ahapaldi batzuk idatzi... Lana, orduak.

Minimo batzuk ezarri behar ditugu.

2. Hitzaldi eta hitzaldiondo

Gertatzen da hitzaldia ez izatea hitzaldia soilik, baizik hitzaldia, grabaketa (non edo han zintzilik ipintzeko), eta gertatzen da testua ere eskatzea (non edo han publikatzeko). Ezin dugu onartu hitzaldia bihurtzea hitzaldia + artikulua, hitzaldia + grabaketa, hitzaldia + grabaketa + artikulua.

3. Hitzaldia artikulua

Hitzaldia ahozko jarduna da, artikulua idatzizkoa. Berridatzi beharra gertatzen zaio maiz idazleari, hitzaldia irakurgarri izan dadin.

Anabasa handia dago ordainketan, eta denetarik: 80 euro, 150, 200, 300...

Tarifa minimo batzuetara ekarri behar ditugu atal horiek denak.

Eskola bisitei lotutako arazoak

1. Idazleen Elkartearen bitartez egiten dira ordainketa gehienak. Hamar urte dira (2018ko datua) 178 euro jasotzen duela idazleak bisita bakoitzeko, bitartean kontsumo prezioen indizea ezertan igo ez balitz bezala urtez urte (gasolina, autopistak, kafeak...)